

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Behin betiko onespina ematea alkatearen dedikazioari eta ordainsariari buruzko aurrekontu gauzatzearen udal ordenantzaren aldaketari

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onespina ematen zaio alkatearen dedikazioari eta ordainsariari buruzko aurrekontu gauzatzearen udal ordenantzaren 26.2 artikulua aldatzeari. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“Alkateak dedikazio partziala (ehuneko 85,71) izango du udalean, hau da, sei ordu laneguneko, eta horren truke 28.142,44 euro gordin jasoko ditu urtean, hamalau ordainsaritan banatuta; haietako bakoitzean, apartekoak barne, 1.580 euro garbi jasoko ditu. Bestalde, ez du kalte-ordainik jasoko bilkuretara joateagatik.”

Legutio, 2020ko apirilaren 17a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO